

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### Vitoria-Gasteizko "Ehari mendebaldeko zabalgunea" 2. BBPBan (lehengo 4. BBPB) dagoen RU-19.5 lursailari dagokion erregistro-funtsa lizitazio bidez besterentzeko dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa-deialdia egitea

Udala da ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean i-4708 erreferentziarekin jasotako funtsaren jabea, zeina udalaren lurzoru ondarearen barruan sartuta baitago, ondare-ondasun gisa; 3. zenbakiko Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, deskribapen eta muga hauek dituelarik:

- 19101 zenbakiko funtsa, bizitegi-lursaila; konpentsazio-proiektuan "Ehari mendebaldeko zabalgunea" 2. BBPBko RU-19.5 gisa identifikatua; 152,58 metro koadroko azalera du, eta 135, 16 metro koadro eraikiko aprobetxamendu eraikigarria dagokio.
- Muga hauek ditu: iparraldean, RU 19-4 lursaila; hegoaldean, RU-6 lursaila; ekialdean, RU 19-10 lursaila, eta mendebaldean, Borinbizkarra kalea.
- Ez du kargarik.
- Katastro erreferentzia: 37-110.

Lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko irailaren 27an. Oinarrizko prezioa, lizitazioleek gora eginez hobetu ahalko duten lizitazio-tasa, ehun eta hogeita bat mila ehun eta hirurogeita bat euro eta berrogeita zortzi zentimo da (121.161,48 euro). Kopuru horretan ez daude sartuta zergak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria [https://v-g.eus/alioeste19\\_5](https://v-g.eus/alioeste19_5) helbidean kontsultatu ahalko da.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behean; 01008 Vitoria-Gasteiz — aurkeztu beharko dira proposamenak, 8:30etik 13:00etara, astelehene ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2024ko azaroaren 29a izango da azken eguna.

Postaz igorritako gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lizitazioleak, eta bidalketaren egunetan bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz ([ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org](mailto:ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org)).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu proposamena deialdia egin duen organoak, ez da hura onartuko. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direlarik proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-betekizunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitazioleek proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko ([https://v-g.eus/alioeste19\\_5](https://v-g.eus/alioeste19_5) helbidean argitaratuko da).

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta esleipen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hark onets dezan.

Esleipendunak sei mila eta berrogeita hemezortzi euroko bermea (6.058,00 euro) jarri beharko du 10 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 1ean

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*

*JON ARMENTIA FRUCTUOSO*